



**EUSKARAZKO HIZTEGI
GOIZTIARRARI LOTUTAKO
KASU-AZTERKETA HH-N:
EUSKARA H1 ETA H2 DUTEN
HAURRAK**

GRADU AMAIERAKO LANA

EGILEA: Rojo Alustiza, Aitor

ZUZENDARIA: Elizalde Estenaga, Amaia

LABURPENA

Euskal Herriarena bezalako testuinguru batean euskarak hezkuntzaren esparruan duen garrantzia ukaezina da. Haur-hezkuntzako etapan, hizkuntza bat barneratzeari dagokionez, aldeak oso handiak eta nabariak izan daitezke, kontuan hartuz euskara H1 edo H2 gisa jaso den edo egunerokotasunean erabiltzen den ala noizean behin erabiltzen den, eskola-testuinguruan bakarrik, adibidez. , Ingurune euskaldunaren faktoreak asko errazten du euskararen ikaskuntza HHko etapanu, horren euskalduna ez den ingurunea duten haurren kasuan ez bezala. Orain arte aipatutakoa kontuan hartuta, ikerketa honen helburu nagusia da egunerokotasunean euskara erabiltzen den ingurune batean etxeko hizkuntza (H1) duten eta ez duten (H2 goiztiarra) murgiltze ereduko haurren hiztegi goiztiarren arteko ezberdintasunari erreparatzea. Euskal Autonomia Erkidegoan kokatutako Haur Hezkuntzako eskola batean gauzatu da ikerketa , bertako hainbat alderdi kontuan hartzen saiatuz. Horretarako, batetik, gelako tutoreari elkarriketa bat egin zaio, egoera hurbilagotik ezagutu ahal izateko, eta, bestetik, hiztegi goiztiarra neurtzeko jarduera bat sortu da, "H" hizkiaren lanketarekin uztartuta. Emaitei erreparatuz, euskara H2 duten haurren hizkuntza jabekuntza laguntzeko proposamen batzuk luzatuko dira, kulturantzatasunaren ikuspegitik.

RESUMEN

La importancia del euskera en el ámbito educativo en un contexto como el del País Vasco es innegable. En la etapa de educación infantil, en lo que se refiere a la adquisición de una lengua, las diferencias pueden ser muy grandes y notables, teniendo en cuenta si el euskera se ha recibido como H1 o H2 o se utiliza en el día a día o se utiliza de forma esporádica, sólo en el contexto escolar, por ejemplo. Teniendo en cuenta lo mencionado hasta ahora, el objetivo principal de esta investigación es atender a la diferencia entre los diccionarios precoces de los niños y niñas que tienen y no tienen una lengua doméstica (H1) en un entorno en el que se utiliza el euskera en su día a día (H2 precoz). La investigación se ha llevado a cabo en una escuela de Educación Infantil ubicada en la Comunidad Autónoma Vasca, intentando tener en cuenta varios aspectos de la misma. Para ello, por un lado, se ha realizado una entrevista al tutor o tutora del aula para poder conocer más de cerca la situación y, por otro, se ha creado una actividad de medición del vocabulario precoz, combinada con la elaboración de la letra "h". Atendiendo a los resultados, se extenderán algunas propuestas para favorecer la adquisición lingüística de los niños y niñas con H2 de euskera, desde la perspectiva de la multiculturalidad.

AURKIBIDEA	
1. Sarrera	3
2. Justifikazioa	4
3. Marko teorikoa	4
3.1 HH-ko haurren hizkuntza jabekuntzaren une garrantzitsuenak.....	5
3.2 Haur euskaldunen hizkuntza jabekuntza Haur Hezkuntzako etapan.....	6
3.3 Haur elebidunak.....	7
3.3.1 Haur elebidunen hiztegiaren garapena.....	8
3.3.2 Hezkuntza elebiduna.	9
3.3.3 Hezkuntza elebiduneko programak.....	9
3.4 Etorकिन kasuak.....	10
3.4.1 Etorकिन ereduen aukeraketa.....	10
3.4.2 Etorकिन jatorrizko hizkuntzak ikastetxeetan.....	11
3.4.3 Haur etorकिन hizkuntzen eta kulturen kudeaketa eskola testuinguruan.....	11
3.4.4 Etorकिन seme-alabak eta eskola.....	12
4. Helburuak	12
5. Metodoa	13
5.1 Dokumentazioa eta eskolako behaketa.....	13
5.2 Euskarari lotutako hiztegi goiztiarraren neurketa.....	14
5.3 Esku-hartze proposamenak diseinatzea.....	15
6. Emaitzak	15
6.1 Irakaslearekin elkarrizketa.....	15
6.2 Froga diagnostikoa.....	16
6.3 Esku-hartze proposamena.....	17
7. Ondorioak	18
8. Mugak eta hobekuntza proposamenak	21
9. Erreferentziak	22
10. Eranskinak	23
10.1. Elkarrizketa.....	23
10.2 “H” letraren ezagutza.....	26
10.3 Herri mailako esku-hartzea.....	27

1. Sarrera

Euskal Herri mailan euskarak berebiziko garrantzia hartzen du Haur Hezkuntzako etapari buruz mintzatzen garenean. Hainbatetan hausnartu da honen inguruan, eta hainbat ikerketa eta froga ezberdin ere burutu dira azkeneko urteotan.

Jakin badakigu Haur Hezkuntzan ematen diren uneak ezinbestekoak direla etorkizun hurbileko oinarri nagusiak finkatu ahal izateko. Hori dela eta, hezkuntzan eskaintzen diren ezagutza ezberdinak era egokian barneratzea, aldi berean hizkuntzak era egokian barneratuz, ezinbestekoa da. Are gehiago, nekez barneratu litezke edukiak komunikazio tresana ez menperatzekotan, kasu honetan euskara. Euskal Autonomia Erkidegoaz ari garela, D eredia nagusitzen den honetan, euskararen jabeakuntzan arreta berezia ipini beharra dago, hizkuntza txikitu abt dela kontuan hartuta, bereziki.

Aipatutakoa kontuan izanda, jarraian datorren ikerketa honen helburu nagusia da, hezkuntza eta hizkuntza nolabait lotuz, testuingurua euskalduna izanik ere euskara H2 goiztiarra duten HHko haurrek zer nolako hizkuntza jabeakuntza duten aztertzea, 4 urteko gela bateko haurren hiztegi goiztiarraren jabeakuntzari erreparatuz.. Beste hitzetan, euskarari lotutako hiztegi goiztiarraren jabeakuntzaren kasu azterketa bat izango da aurkeztuko dena. Horretarako, bi hiztun mota hartuko direlarik aintzakotzat:, bata euskara etxetik dakarren murgiltze ereduko Haur Hezkuntzako umea, eta, bestea, euskara etxetik ez dakarren murgiltze ereduko umea. Azkenik, emaitzak jaso eta baloratu ostean, kulturarteko ikuspegian oinarritutako proposamenak luzatuko dira, euskara etxeko hizkuntza ez duten haurren hizkuntza jabeakuntza laguntzeko asmoz diseinatuak.

2. Justifikazioa

Euskararen inguruko gai bat hautatzerako garaian pisuzko arrazoiatariko bat interes pertsonala izan zen, hau da, nire kasuan etxean betidanik bai gaztelera eta bai euskara entzuteko zortea izan dut. Aldiz, txikitatik zenbait lagunei euskaraz bakarrik egiten zutela entzuten nien eta haiekin denbora dezente pasatzen nuen eta pasatzen dut oraindik. Nire egunerokotasunean normaltasunez bizi dudan arren, bai etxean eta bai kalean euskaraz entzuteak betidanik arreta deitu dit, euskara-gaztelania elebitasunak, alegia.

Goian esanak kontuan hartuta, euskara eta eskola lotzen zituen gai bat aukeratu nahi nuela oso argi neukan. Zenbait egun pentsatzen igaro ondoren, eta Haur Hezkuntzan arreta jarritz, hizkuntza jabeakuntzaren gaia aukeratzea erabaki nuen. Aukeraketa honen beste arrazoiatariko bat, amarekin zenbaitetan hizketagai izan dugun zerbait da: berak bere seme alabei euskaraz egitea erabaki zuen eta horrek izan ditzakeen abantailen inguruan zenbaitetan aritu gara hitz egiten.

Bestalde, praktikan kulturaztasun handiko zentroetan ibili naiz eta horietatik esperientzia eta ezagutza ugari lortzeko aukera izan dut bertatik aberastasun handia lortuz. Ikuspegi hauek kontuan hartuta, bertan egon naizen bitartean, ikusteko aukera izan dut eskolara sartzen diren lehen urte hauetan (Haur Hezkuntzan) D eremuan egon naizelarik, ezberdintasun nabariak daudela etxetik euskara ekartzen dutenen eta ez dutenen artean, etxetik soilik gaztelania edo bestelako hizkuntza bat (edo bat baino gehiago) dakartelarik. Horrek betidanik arreta deitu dit eta horren inguruan gehiago ikasteko eta barneratzeko aukera paregabea ikusten dut.

3. Marko teorikoa

Gaur egun denok dakigun bezala, milaka hizkuntza ezberdin aurki ditzakegu munduan zehar. Juaristik (2006) dioen moduan, azken datuen arabera munduan zehar 6.000 hizkuntza ezberdin baino gehiago daude.

Hurrengo lerroetan emango diren nondik norakoak zehazteko nahiarekin, aztertuko da zein eragin izan dezakeen gaur egungo Euskal Herrian, Haur Hezkuntzako etapako umeen euskararen jabeakuntzan etxeko hizkuntza nagusi bezala euskara izateak eta gurasoek egunerokotasunean hau erabiltzeak. Gai honetan guztiz murgildu aurretik, "elebakar" eta "elebidun" kontzeptuak aztertuko dira Euskal herriko kasuan eta hauen esanahia ere argituko da.

Hiztun “elebidun” esaten zaie bi hizkuntza edo gehiago jakin edo erabiltzen dituzten haiei, Euskal Herrian, adibidez, euskara eta gaztelania izan daitezke bi hizkuntza horiek. Aldiz, hiztun “elebakarrak”, hizkuntza bakarra jakin eta erabiltzen duten haiei esaten diegu. Adibidez, dena euskaraz, dena gaztelaniaz edota dena frantsesez. Esan genezake gaur egun gizarte eleanitz batean bizi garela Euskal Herrian, izan ere, hiru hizkuntza ofizialez gainera (euskara, gaztelania eta frantsesa, eremu ezberdinetan) beste hizkuntzak ere badira, eta badira hiztun elebakar, elebidun eta eleanitzak.

Bestalde, lan honetan hainbatetan irakurriko dira H1 eta H2 kontzeptuak eta hauek garbi azalduko dira hurrengo lerro hauetan. Alde batetik, Sareko Euskal Gramatikak (SEG) dioen moduan, H1 hiztunaren lehenengo hizkuntza bezala ezagutzen da. Bestalde, H2, bigarren hizkuntza edo gerora bereganatzen den hizkuntza horri esaten zaio.

Jarraian ageri den marko teorikoan lan honetarako egindako ikerketaren arlo teoriko nagusiei buruzko hainbat azalpen biltzen dira. Lehenik eta behin, haurren eta, bereziki, haur euskaldunen hizkuntza jabekuntzaren etapa edota une garrantzitsuenak aztertuko dira. Ondoren, haur elebidunen hiztegi goiztiarraren garapena jorratuko da. Jarraitzeko, elebitasun motak eta programa ezberdinen nondik norakoak aztertuko dira. Azkenik, haur etorkinen egoera ezberdinak azalduko dira; ereduak, jatorrizko hizkuntzak eta hauen kudeaketa eskolako testuinguruan, besteak beste.

3.1 HH-ko haurren hizkuntza jabekuntzaren une garrantzitsuenak

Haur Hezkuntzako aroan dauden Euskal Herriko haurren hiztegi goiztiarraren jabekuntzaz aritu ahal izateko, garai horretan hizkuntzaren jabekuntzan igarotzen dituzten etapetan jarriko da arreta. Lehenik eta behin, aipatu nahi da haur guztiek hizkuntzaren jabekuntzan urrats berdinak betetzen dituztela eta guztiak etapa berdinetatik igarotzen direla, dena delako hizkuntzaren jabekuntzaz ari garela. Newport (1990) eta Elmanen (1993) arabera, haurren lehenengo urteetan garapen fonologikoa ematen da, hau da, haurra bere egunerokotasunean entzuten duen hizkuntza identifikatzen hasten da jaiotzen den momentutik. Lau hilabete dituenean, haur elebiduna bi hizkuntzak identifikatzen hasten da. Ondoren, totalera aroan sartzen dira, bere inguruan entzuten eta identifikatzen dituzten hizkuntzak erabiltzen hasten dira, eta entzuten ez dituzten hainbat ere bai. Hamar eta hamabi hilabete bitartean, aurretik izan duten entzumen-hautemate ahalmen zabala mugatzen joaten da eta entzuten duten hizkuntza barneratzerara eta identifikatzerara mugatzen dira.

Etap horiek atzean utzita, aurrera pauso nabarmenak emango dira eta ahots-ekoizpenak eraikitzen hasiko da haurra. Gleitman eta Newporten (1995) eta Guastiren (2002) hitzetan hamabi hilabete inguru dituen momentuan, haren lehen hitzak esaten hasiko

da. Hasierako uneetan, hitz solteak esaten ditu eta etapa honi *hitz bakarreko aroa* esaten zaio. Ondoren, hamahiru hilabeterekin aurrera pausoak ematen joango dira, eta etapa honetan hitzak ulertzen hasiko dira; era berean, berrogeita hamar hitz inguru ulertzeko gai izango dira. Haurra, hamazortzi hilabete dituelarik, bi hitz esaldi berean sortzeko gai izango da eta aro edota etapa honi *hitz biko aroa* esaten zaio. Hilabete gutxira, haurrak geroz eta esaldi konplexuagoak eraikiko ditu eta morfologia-markak eta sintaxi-ezaugarri batzuk ere azaltzen hasiko dira. Konplexutasun hau geroz eta zuzenagoa izango da hilabeteak pasatzen diren heinean, hiru urterekin konplexutasun sendo batean bilakatu arte hauen esaldiak. Beranduenez 5 urterekin, haurrak ahoko hizkuntza guztiz garatua izango du eta pixkanaka denbora pasa ahal hiztegia aberasten joateko aukera izango du.

Beraz, esan daiteke hauek izan daitezkeela edozein herrialdetan eta hizkuntzatan jaiotzetik 5 urte betetzen dituen arte (Haur Hezkuntzako etapa) haurrak igarotzen eta betetzen dituzten aroak eta etapak. Nolanahi dela ere, kontuan izan behar da etapa hauek era egokian igaroko direla haurraren garapena baldintza arruntetan ematen bada (ingurutik behar adinako *inputa* jaso badu, afasiarik edo hizkuntzari eragiten dion nahasterik ez badu eta abar).

3.2 Haur euskaldunen hizkuntza-profil nagusiak Haur Hezkuntzako etapan

Hizkuntza bat barneratze eta ikastearen prozesu horretan, haurrak garenean edota zaharragoak garenean ikastea, prozesu eta mekanismo ezberdinek eragindako lorpenetat hartu da. Beraz, hau kontuan izanda, arrazoi horregatik hartu du berebiziko garrantzia adinaren gaiak hizkuntzaren jabeakuntzaren arloan (Zawiszewski, 2006). Izan ere, adinean aurrera egiten den heinean, gizakiak ikasteko erabiltzen dituen baliabideak aldatzen joaten dira, hori dela eta, hizkuntza ikasteko gaitasun aukera aldatzen eta, hein batean, murrizten joaten da adinarekin batera.

Haur euskaldunen inguruan arreta jarriz, gaur egungo Euskal Herrian kontuan eduki behar da badirela bi profil nagusi ezberdinetako haurrak Haur Hezkuntzako etapan. Alde batetik, euskaldun elebakarrak ageri dira, haien egunerokotasunean euskaraz bakarrik mintzatzen direnak. Hala ere, Haur Hezkuntzako etapan dauden haurrak elebakarrak dira, baina berehala elebiduntzen joaten dira gaztelania edota frantsesa barneratuz. Bestalde, euskaraz gain beste hizkuntza batean mintzatzen direnak euskaldun elebidun edo eleanitz bezala ezagutzen dira gaur egun gure gizartean.

Haur euskaldun elebakarren eta elebidunen arteko hizkuntza jabeakuntzaren garapen erritmoari dagokionez, elebidunen kasuan ikertu ahal izan da bi hizkuntza era berean bereganatzeko prozesu horretan ez dutela elebakarrek baino kontzeptu gutxiago

bereganatzen. Aldiz, hizkuntza bakoitzean elebkarrek baino hitz gutxiago izan ditzakete, baina ez du zertan hala izan (Pearson eta beste, 1995, 1997).

3.3 Haur elebidunak

Haur elebidunen hizkuntza garapenari dagokionez, haur elebkarren garapena jabekuntzari dagokionez antzekoa izan dadin, haur elebidunek txiki-txikitatik zenbait puntu eta baldintza ezberdin jarraitu behar dituzte. Lehenik eta behin, elebidunen kasuan, bi hizkuntzak txiki-txikitatik entzuteko aukera izatea eta horrekin batera, *input* berean hizkuntza horiek bereizita entzuteko aukera izatea. Bi baldintza hauek betetzeko aukera edukiz gero, aukerak areagotuko zaizkie haur elebidunei hizkuntza jabekuntzaren inguruan haur elebkarren antzeko urratsak eman ditzaten. Kasu honetan, haur euskaldunei begira, ezinbestekoa izan daiteke gaztelania eta euskara txiki-txikitatik entzutea hizkuntza jabekuntza elebiduna goiztiarra izan dadin, era egokian eman dadin eta euskararen jabekuntzaren garapena haur elebkarren antzeko edota oso gertukoa izan dadin, hau da, elebitasun orekatu bat lor dadin.

Badira kasuak non ezberdintasun batzuk azaldu daitezkeen hizkuntza jabekuntzaren garapenean elebkarren eta elebidunen artean. Ohiko kasuetan, erritmo aldetik ez dira ezberdintasun nabariak ageri, baina badira kasu batzuk non, hizkuntza bereganatzearen erritmoan, haur elebidunen eta haur elebkarren arteko ezberdintasunetariko bat aspektu kuantitatiboa izan daitekeen. Elebitasunaren inguruko iker-eremuan ikusi denez, aipatu den bezala, badira kasuak non hizkuntza bat bestea baino motelago garatzen duten haurrek (Meisel 2004, Bernardini eta Schlyter 2004), *input* txikiagoa jaso dutelako hizkuntza batean bestean baino. Hori dela eta, *inputa* dela eta astiroago garatzen duten hizkuntza horri dagokionez, puntuazio baxuagoak lortzeak ez du inola ere esan nahi hizkuntza horretan inolako atzerapen kognitiborik izan behar duenik.

Inputaz gain, bada kontuan hartzeko beste aldagai bat: hizkuntza bakoitzarekin kontaktua hasten den garaia. Horren arabera, batetik, aldi bereko elebitasuna (2H1) ageri da. Kasu horretan, barneratzen diren bi hizkuntzak H1 bezala bereganatzen dira. Bestalde, ondoz ondoko elebitasuna ageri da. Honetan, lehenik hizkuntza bat eta ondoren bigarrena bereganatzen dira. Horrekin batera, bigarren hizkuntzaren (H2) bereganatze prozesuari begira, garrantzitsua da bi mota hauen artean bereizketa egitea: alde batetik, “goiztiarra” eta bestetik, “berantiarra”. Noiz den goiztiarra eta noiz berantiarra adinari dagokionez, oraindik erabakitzeke eta adosteko dago, aldiz, hiru urtera arte ikasitako hizkuntzak lehen hizkuntza bezala hartzen dira. 3 eta 6 urte bitarteko hizkuntza berriak, bigarren hizkuntza goiztiar bezala ezagutzen dira. Azkenik, 6 urte bete ondoren ikasitako hizkuntzak bigarren hizkuntza

berantiar bezala ezagutzen dira. Dena den, adin muga hauek erabat orientagarri moduan erabiltzen dira, ordea, garbi-garbiak ez baitira (Meisel, 2007).

Azkenik, hezkuntza elebidunaren arrakastan eragina duten *inputa*-ren eta faktoreak aztertu ondoren, ondorio bezala atera ahal izan da hezkuntza elebidunaren arrakastak zerikusi edo lotura zuzena duela eskolak ikasleen ama hizkuntzari ematen dion trataerarekin (Vila eta Siguan, 1998). Hezkuntza elebidunak helburu duen elebitasun hori gehitzailea izan behar dela dio Bilbaok (1998). Hau da, elebitasun gehitzailea eman dadin, beti ere etxeko hizkuntza errespetatu eta kontuan hartu behar da eta ondoren eskolaren laguntzaz bertako hizkuntza txertatzen joango da, bereziki garrantzitsua dena kontuan izanik euskara hizkuntza gutxitua dela eta diglosia egoera nabarmenean gaudela.

Beraz, arestian esandakoak kontuan hartuta, Barreña eta Garciak (2009) dioten moduan, hizkuntza bakoitza bereganatu eta barneratzeko faktore ezberdinek hizkuntza goiztiarraren jabekuntza prozesua baldintza dezakete. Abiapuntua desberdina izanda H1 eta H2rako (adina, *inputa*, aldiberekotasuna, H2 goiztiarra ala berantiarra...), azken horren garapena eta azkenean lortzen den emaitza, hau da, lortutako gaitasun maila ere baldintza dezakete.

3.3.1 Haur elebidunen hiztegiaren garapena

Haur elebidunen hiztegiaren garapenaren inguruan, haurraren bizitzaren lehen etapetan, hau da, Haur Hezkuntzako etapan sartu aurretik (30 hilabete izan aurretik), ikerlariek ikusteko aukera izan dute zer nolako garrantzia duen haur elebidunen garapenean haien inguruan entzuten dutenak ondorengo hizkuntza kantitatearekin lotuta. Hau da, haurrek geroz eta hitz gehiago entzun haien egunerokotasunean, orduan eta hiztegi zabalagoa eta aberatsagoa izango dute hizkuntza horren inguruan, eta alderantziz (Barreña eta beste, 2008). Beraz, laburbilduz, aberastasun handia ematen dio haurraren hiztegiari lehen hilabeteetan jasotzen duen *inputak*.

Euskara hizkuntzari begira, antzeko garapen bat ikusi daiteke hiztegiaren garapenari dagokionez (Barreña eta beste, 2008); 16-30 hilabete arteko 950 haurren datuetan oinarritutako ikerketa bat egin ondoren, ondorio bezala atera ahal izan da 26 hilabetetik gorako haurrengan izugarritzko islada duela haien egunerokotasunean entzuten duten euskara kantitateak euskarazko hiztegia aberasteko prozesuari begira. Adibide garbi bat jartzeko, hobeto uler dadin, haurrek egunerokotasunean entzuten duten euskara kantitatea %60 baino baxuagoa denean, haurren hiztegiari zein gramatikari begira, garapena txikiagoa da haur elebazarren garapen prozesuarekin alderatuz gero.

3.3.2 Hezkuntza elebiduna

Vilak (1998) dioen moduan, hezkuntza elebidunak garapen luzea du hezkuntza sisteman. XX. mendean elebitasuna ez zegoen ongi ikusia eta elebitasun goiztiarra, jakina, egoera berdinean aurkitzen zen. Are gehiago, urteak daramatzate psikologiak eta pedagogiak hezkuntza elebidunaren aurka egiten, mota guztietako gaitzak salatu baitituzte. Argi ikusi daiteke gaur egun hezkuntza elebidunari buruz dauden ezagutzak eta iritziak horrelako ez-beharretatik urrun daudela eta inork ez du zalantzan jartzen sozialki egoera hobean dauden eta ez hain onean dauden haurrentzat ona dela (Vila, 1998).

Hezkuntza elebidunak hainbat faktore eta abantaila ditu, hazkuntza pertsonala, garapen kognitiboa eta identitate baten garapena ahalbidetzen du (Baker, 2006; Cenoz, 2009). Hezkuntza programei dagokienez, bi hizkuntzetan garatzen diren programa horiek elebidunak izango dira, aldiz, hizkuntza bakarrean garatzen direnak elebakarrak. Hezkuntza elebidunaren inguruan, hainbat dira atera daitezkeen onurak eta kalteak eta hainbat ikerketa egin dira abantaila eta desabantailak era egokian eta hobean ezagutu ahal izateko. Barquinek (2006) dioen moduan, bigarren hizkuntzako programek eta irakasleek izugarri laguntza baliogarria eman diezaiekete bigarren hizkuntzaren ikasleei. Aldiz, aitortzen du bigarren hizkuntza batean ikastea, programa laguntza handikoa izanda ere, ez dela lehenengoan ikastea bezain eraginkorra. Hezkuntza elebidunaren barruan, funtzio ezberdinak egon daitezke; alde batetik, programa batzuk lehen hizkuntzaren garapena mantendu eta erabat elebidun izan daitezen ikasleei laguntzeko diseinatuta daude. Bestalde, beste funtzio bat, elebitasuna sustatazea izan daiteke, bertan, bigarren hizkuntzaren ikasleak eta jatorrizko hiztunak bere baitan hartuz.

3.3.3 Hezkuntza elebiduneko programak

Hezkuntza elebidunaren barruan hainbat programa ezberdin aurkitzen ditugu. Bilbaok (1998) aipatzen duen bezala, 3 programa ezberdin aurkitu ditzakegu hezkuntza elebidunaren barruan. Lehenik eta behin, mantentze programa dago; bertan, ama hizkuntzan eskaintzen da hezkuntza eta etxeko hizkuntza mantendu egiten da, horrez gain, eskolan gizarteko hizkuntza ere ikasten da. Bestalde, murgiltze programa dago. Horretan, hezkuntzan bigarren hizkuntza erabiltzen da eta ama hizkuntza ere kontutan hartzen da. Azkenik, azpiratze programan, hezkuntza gizartean erabiltzen den hizkuntza nagusian ematen da eta hizkuntza gutxitua ez da kontuan hartzen. Ondorioz, programa honetan, haurrak gizartean erabiltzen den hizkuntza barneratzen du eta ama hizkuntza baztertu egiten du. Euskal Herrian lurraldearen arabera kasuistika ezberdina da, baina EAEri dagokionez, gailentzen den programa elebiduna murgiltze ereduan oinarritzen da.

3.4 Etorकिनen kasuak

Arrazoi ezberdinak direla medio (ekonomikoak, politikoak, erlijiosoak...) geroz eta handiagoa da etorkinen presentzia gaur egun Euskal Herrian (Agirre, 2004). 2008ko datuei erreparaturaz, Hego Euskal Herrian finkatuak dauden etorkin kopuruak nabarmenki egin du gora. Datu zehatzei erreparaturaz, 1998 eta 2008 urte artean, 200.000 etorkin iritsi ziren. Horren ondorioz, biztanleen %1 izatetik %5,6 izatera pasa ziren. Bestalde, nabarmaneki ikusi eta zehaztu ahal izan da, gaur egun etorkinak euskarak oso indar edota erabilera gutxi duten gune edota herrietara etortzen direla (Aierdi, 2008).

Hezkuntzaren arloan arreta jarriz, bertan beste hainbat sektoretan bezala, giza talde honek eskatzen duen aniztasun egoerari modu egoki batean aurre egiteko lana eta erantzunkizuna dago. Aldiz, etorkinen kasua oraindik lantzeko eta hobetzeko dugun gaietariko bat da, nahiz eta aurrera pausoak eman direla ere onartu behar den (Agirre, 2004). Etorकिनen finkatze prozesua ez da inoiz erraza, baina hezkuntzaren eskutik hauek bertakoak bezala direla sentiarazteko prozesu horretan laguntza paregabea eman diezaiekegu.

EAEEn oraindik izugarritzko aldea dago bertakoen eta etorkinen artean matrikulatzen diren ereduari erreparatzen badiegu. Adibide bat jartzeko, Eusko Jaurlaritzak ateratako datu batzuen arabera, 2005-2006 urteetan EAEEn etorkinen seme-alabak 13.600 ziren, eta horien artean %49 A ereduari zeuden eskolatuak, %27 B ereduari eta %22 D ereduari (Barquín, 2006).

Hizkuntzaren auzian sartuz, etorri berriak diren etorkin gehienak kikilduta sentitzen dira, hauek esaten dutena besteek ez baitute ulertzen. Hori dela eta, gizarte mailako hanka sartzeak egitea ohikoena izaten da eta horren beldur izaten dira. Etorकिन etorri berrien esanetan, euren nortasun guztia aldatzen da nahi dutena egoki adierazi ezin dutenean (Barquín, 2006).

3.4.1 Etorकिनen ereduari aukeraketa

Etorकिन Haur Hezkuntzako eskolatzeari dagokionez, Manterola eta Lardizabal-ek (2010) azpimarratzen duten moduan, gutxiengo bat bakarrik joaten dela eskolara, hau da, oso portzentai baxu bat joaten da derrigorrezko eskolaldira. Euskal Herrian aurkitu ditzakegun eredu ezberdinen artean, etorkinen kasuan A ereduari da gehien aukeratzen dutena, etorkinen %41-ak aukeratzen baitu eredu hau. Beste ereduari erreparatzen badiegu, B ereduari adibidez, %29a eskolatzatzen da, eta hain gertukoa dugun D ereduari, aldiz, %30. Aldiz, orain emandako datu hauen xehetasunei begira, ikertu ahal izan dute aukerak dexente aldatzen direla herrialdearen arabera, izan ere, EAEko lurraldeezberdinetan

bakoitzak duen egitura ereduak eragina baitauka. Adibidez, Gipuzkoa eta Bizkaia alderatzen baditugu, Gipuzkoan %51a D ereduan eskolaratua dago, aldiz, Bizkaian gehiengoa A ereduan matrikulatua dago. Halaber, kontuan eduki behar dugu Gipuzkoan A eredia ez dagoela batere hedatua eta, hori dela eta, etorkinen gehiengoa B eta D ereduetara bideratzen dela (Manterola eta Lardizabal, 2010).

3.4.2 Etorkinen jatorrizko hizkuntzak ikastetxeetan

Gaur egun gure eskoletan eta gure hezkuntzan etorkin kopurua handia dela eta, hainbat egoera ezberdinen aurrean aurkitu ahal dira irakasleak. Etxeberriak (2006) aipatzen duen bezala, curriculumean etorkinen hizkuntzak eta kulturak ere ikuspegi integratzailean sartu beharko lirateke. Aipatzen du sentsibilizazioa oso estrategia egokia izan daitekeela etorkin guztiak hezkuntza arloan giro aberats eta egoki batean mugil daitezen. Hori dela eta, prozesu hori era errazago batean eman dadin, hainbat ekintza ezberdin egin daitezke; horien artean, kultur arteko jaialdiak egitea edo hormak haien kulturako xehetasunekin apaindu eta horrelako ekintzak burutzea oso aberasgarria izan daiteke. Hau da, integrazio prozesu horretan ahalik eta gehien laguntzea oso baliagarria izaten da.

3.4.3 Haur etorkinen hizkuntzen eta kulturen kudeaketa eskola testuinguruan

Gaur egun etorkinek hainbat zailtasun eta erronkari aurre egin behar diete herrialde berri batera iristen direnean, eta horien artean bertako hizkuntza edo hizkuntzak ikastea izaten da nagusienetako bat. Gaur egun EAEn oso ohikoa den kasu bat daukagu, zeinetan etorkinek bertako hizkuntza bat ezagutu eta menperatzen duten eta bestea ez, hau da, Hego Ameriketatik datozen etorkinen kasua, adibidez (Manterola eta Berastegi, 2011).

Lurralde ezberdinetan hainbat ikerketa egiteko aukera izan dute, eta ondorio bezala atara ahal izan da, ikasle etorkinen eskolako hizkuntzen maila ez dela bertakoak diren ikasleenaren parekoa (Navarro, Huguet eta Sansó, 2014; Navarro, Huguet, Sansó eta Chireac, 2012; Siguán, 1998; Serra, 1997; Díaz-Aguado, Baraja eta Royo, 1996; Mesa eta Sánchez, 1996). Hala, hizkuntza mailako integrazio prozesu hau era egokian aurrera eramatea ezinbestekoa da haurrak bigarren hizkuntza hori (H2) ahalik eta egokien eta ahalik eta azkarren barnera dezan. Horretarako, Barquinek (2006) dioen bezala, bigarren hizkuntzaren ikasle guztiak ongi hitz egiten dutenekin harremandu eta murgildu behar dira egunaren momentu batzuetan. Are gehiago, ez litzateke estrategia ona izango bigarren hizkuntzaren ikasleak gehiengoaren programatik aparte mantentzea hizkuntza ikasten duten bitartean. Beraz, oso garrantzitsua gertatzen da integrazio hau eman dadin beste hurrekin hartu-emanak eta harremanak izatea prozesu hau errazteko nahiarekin.

Beraz, Barquinek (2006) aipatzen duen bezala, asimilazio edo integrazio prozesu hori ez da besterik gabe edota ezer egin gabe ematen, hau da, ikasleari gelan mahai bat emanda bakarrik ez da aktibatzen prozesu hau. Irakasle guztiek egon behar dute trebatuta hizkuntza eta edukien irakaskuntza integratzen. Hori dela eta, irakasleen trebetasun eta ezagutzak areagotzeak, izugarritzko aberastasuna eman die eskola ezberdinei eta irakasleak haien ezezagunak izan ahal diren zenbait egoeraren aurrean jarri ditu.

3.4.4 Etorkinen seme-alabak, eskola eta hizkuntzak

Barquinek eta Bikandik (2009) aipatzen duten bezala, etorkinen seme-alaben kasuan ez gara etorkinez ari, hemen hazi eta hezi egiten direlako, haien identitatea hemen eraikitzen dutelarik. Identitateari lotutako prozesu hori aurrera eramatean, bi premisa hauek kontuan eduki behar ditugu: lehenik eta behin, eskolak paper garrantzitsu bat jokatzen du etorkinen seme-alabekin eta hauei identitate anitza edukitzeko aukera eskaini behar die. Horretaz gain, gaur egungo eskola inklusiboan ez dago etorkinik, eta familia atzeritarra edukitzea aniztasun ezaugarri bat da beste hainbaten artean.

Goran aipatutako bi premisa horiek kontuan hartuta, euskararekin lotura zuzena dutela esan dezakegu. Hau da, etorkinen seme-alabek beste ume guztiek bezala haiek ere bi hizkuntza ofizialak ikasteko eskubidea dute eta eskubide hori eskolak bermatu behar du. Horretaz gain, gaztelera ere ikasteko aukera eta eskubidea izan behar dute. Biak dira hizkuntza ofizialak eta ikasleek biak ondo jakitea da eskolaren helburua (Barquin eta Bikandi, 2009).

4. Helburuak

Ikerketa honen bitartez lortu eta bete nahi diren helburuak hurrengo hauek dira:

- Haur Hezkuntzako etapako haurren hizkuntza jabeakuntza goiztiarra sakonki aztertzea, testuinguru elebarkar nahiz eleanitzetan, haur elebarkarren eta elebidunen prozesuen ezaugarri bereizgarrietan sakonduz.
- Haurren hizkuntza jabeakuntza murgiltze eremuan nolakoa den ezagutzea, euskararena kasu honetan, eta etxeko hizkuntza gisa duten eta ez duten haurren arteko ezberdintasunak aztertzea, hiztegi goiztiararen jabeakuntzari lotuta.
- EAEko testuinguruan, etorkinen seme-alaben eta bertakoen (euskara etxeko hizkuntza dutenen eta ez dutenen) arteko ezberdintasunak ikustea hizkuntzaren eta hiztegiaren garapen goiztiarrean, Haur Hezkuntzako etapan.

5. Metodoa

Gauzatutako ikerkerketaren testuingurutik abiatuz, praktikaldi garaian egindako lan bat izan da. Beasainen kokatzen den Alkartasuna Lizeo ikastetxean burutu da eta Beasain 15.000 biztanle dituen Goierriko eskualdeko herri bat da. Herrian 3 eskola ezberdin daude eta haien artean oso ezberdinak direla esan daiteke. Lehenik eta behin, Murumendi ikastetxea azken neurketen arabera ikasleen %70-a etorkinak dira eta bertan D eredia bakarrik eskaintzen dute, Lehen Hezkuntza ere bertan burutu daitekeelarik. Bigarrenik, La Salle ikastola kontzertatua dago, bertan D eredia eskaintzen da baita ere eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza (DBH) bertan ere egiteko aukera dago.

3. eskola lehen aipatutako Alkartasuna Lizeoa da, ikastetxe honen nondik norakoak sakonago ulertu ahal izateko, publikoa den ikastetxe honetan Haur Hezkuntzan 144 ikasle daude, horietatik, %80 bertakoak dira eta %20 bertan jaiotako etorkinen seme-alabak. Are gehiago, etorkinen seme-alaben kopurua hain baxua da, lehen aipatu bezala, herriko beste ikastetxe horretan (Murumendi) kopuru hori oso handia delako. Horrez gain, adin bakoitzeko bi lerro ezberdin aurkitzen dira. Are gehiago, irakasleei dagokienez, Haur Hezkuntzan, alde batetik, 8 tutore daude eta bestalde, Ingeleseko, Musikako eta Gorputz heziketako irakasle bana ere badaude. Ikastetxe honetan, 4 urteko 2 gela ezberdin daude, gela bakoitzean 22 ikasle daudelarik. Azkenik, D eredia bakarrik eskaintzen da eskola honetan eta Lehen Hezkuntzara arte bertan egoteko aukera eskaintzen da. Nire kasuari begira, 4 urteko gela bat behatzeko eta ikerketa gela horretan bertan aurrera eramateko aukera izan dut.

5.1 Dokumentazioa eta eskolako behaketa

Behatutako gelari dagokionez, aipatu bezala 4 urteko 22 ikasleko gelan batean eraman da aurrera ikerketa. Bertan, bertakoak diren 16 ikasle daude eta kanpotar jatorrizko familietako 6 ikasle ere aurki daitezke. 6 ikasle hauei begira, Errumaniar jatorrikoak dira eta 2 urteko gelan sartu zirenetik gaur egun arte daramate bertan. Are gehiago, Haur Hezkuntzan, 6 ama hizkuntza ezberdin ageri dira gutxi gora behera eta 12 herrialde ezberdinetako ikasleak. Lehenik eta behin, 6 ikasle errumaniarren kasuan ama hizkuntza Errumaniera zen, baina, 6 familia hauen kasuan gaztelania ezagutzen zuten eta hitz egiteko gai ere baziren. Aldiz, haurrek egunerokotasunean euskara eta gaztelania ulertu ahal izateko zenbait zailtasun ere bazituzten. Bigarrenik, bertako 16 ikasleen artean, horietatik 11 ikaslek ama hizkuntza euskara zuten eta gainontzeko 5 ikasle horiek ama hizkuntza gaztelania zuten eta egunerokotasun horretan euskaraz mintzatzeko zailtasunak zituzten, aldiz, ulertzeko ez zuten inolako zailtasunik. 5 ikasle hauen kasuan, haien

egunerokotasunean dena gaztelaniaz egiten zuten, horregatik, euskaraz mintzatzerako orduan zailtasunak izaten zituzten.

Testuinguruan sakonago murgildu garelarik, aipatutako gela honetan, ama hizkuntzak duen garrantzia eta trataeraren inguruan informazioa lortu nahi izan da. Horretarako, alde batetik, asteetan zehar behatutakoa erabiliz, gelako tutorearentzako zenbait galdera ezberdin prestatu dira elkarrizketa moduan erabili ahal izateko. Tutoteari elkarrizketa (1.eranskina) egitea erabaki da, ikastetxean berak ezagutzen dituelako hobekien umeak, baita bakoitzaren xehetasunak eta jatorriak ere. Hori dela eta, gai honen inguruko tutorearen iritzi eta pentsamenduen inguruan gehiago jakiteko aukera izan da. Azkenik, lehen mailako iturri batetik oso baliagarria izango den informazioa eskuratzeko aukera paregabea izan da.

Elkarrizketa 4 zati ezberdinetan banatuta dago. Lehen zatia galdera orokorren bitartez gelaren eta haurren xehetasunak ezagutzeko da, hala nola, haur kopurua, tutoreak noiztik ezagutzen dituen haurrak, eskolan daramatzaten urteak eta haien jatorria. Bigarren zatia haurren ama hizkuntzek gelan duten presentzia ezagutzeko izango da, bertan, haien artean erabiltzen duten hizkuntza, gelan ematen zaion garrantzia eta honen inguruko tutorearen ikuspuntuaren inguruan galdetuko zaio. Hirugarren zatian familia etorkinekiko harremana zein den ezagutuko da, hauen papera gelako proiektuetan, covid egoeraren eragina eta bileretako komunikazioa zein modutan ematen den ezagutuko da. Azkenik, laugarren zatian, lexiko goiztiarra eta kulturartekotasunaren inguruko xehetasunak ezagutuko dira, hala nola, euskaldunen eta bestelakoen arteko ezberdintasuna hiztegiari begira eta aniztasun kulturalaren presentzia ikasgelaren barruan zein den ezagutzuz.

5.2. Euskarari lotutako hiztegi goiztiarraren neurketa

Horrez gain, bertakoen (euskara H1 eta H2 dutenen) eta kanpotar jatorria duten familietako haurren arteko ezberdintasun edota abantaila hizkuntzaren jabeakuntzari dagokionez, froga diagnostiko bat planteatu da talde handian gelan aurrera eramango dena. Froga honetan zehar, batzuen eta besteen arteko ezberdintasunak, erraztasunak, abantailak edota zailtasunak behatu dira. Orokorrean, ikasleek duten hizkuntza-garapen maila behatzeko erabili da. Bertan, arbelean denon artean euskarazko zenbait hitz ezberdin landu dira eta denon artean ezagutu eta errepikatu ditugu. Behin hitz hauek ezagutu eta barnerratu direla, hauen inguruan esaldi ezberdinak edota hauen inguruko ezagutzak denon artean aipatu ditugu zein puntutaraino diren ezagunak ikusi ahal izateko. Jarraitzeko, hitz konplexuago batzuetara joango gara. Hitz konplexuago hauei denbora eskaini aurretik, “H”

letra ezagutu da, haien aurre-ezagutzak eta bestelakoak ikusten saiatuz. Ondoren, "H" letra duten hitzak barneratzen eta ezagutzen joan gara pixkanaka, hasiera edota tartean duten hitzak ere erabiliz. Behin, hitz berri hauek ezagutu ditugula, 2 orri ezberdin eman zaizkie haurrei, batean argazkiak bakarrik agertuko dira, bestean aldiz, argazki horiekin lotzeko hitz idatzi horiek. Horren ondoren, haur bakoitzak hitzak moztu behar izan ditu eta dagokion marrazkiaren ondoan itsatsi, hitza eta marrazkia batera joan zitezten. Behin marrazki eta hitzak lotu ditugunean, "H" letra kolorez horiz borolbiduko dugu (2. eranskina).

5.3. Esku-hartze proposamenak diseinatzea

Froga diagnostikoa aurrera eraman ondoren, behin haurrak behatu direlarik, kulturartekotasunaren ikuspegitik haur hauek pixkanaka gure kulturen eta gure hizkuntzaren barruan kokatzen joan nahi da. Horretarako, bi esku-hartze ezberdin eraman ditugu aurrera; herri mailako esku-hartzea eta ikasgela mailako esku-hartzea.

Amaitzeko, behin datuak eta emaitzak ateratzeko aukera izandakoan, marko teorikoan oinarritutako ondorioak atera ahal izan dira.

6. Emaitzak

Lortutako datuak bildu eta aztertu ondoren, bertatik ateratako hainbat emaitza ezberdin aurkeztuko dira hurrengo lerroetan .

Jasotako emaitzak bi azpiatal ezberdinetan aurkituko dira. Lehenengo azpiatalean, irakaslearekin izandako elkarrizketatik jasotako emaitzak azalduko dira. Bigarren azpiatalean, froga diagnostikoaren emaitzak egongo dira.

6.1. Irakaslearekin elkarrizketa

Lehenik eta behin, ikasgelako irakasleari egindako elkarrizketari esker, ikusteko aukera izan da familia etorkinak dauzkaten haurren ama hizkuntzak ikasgelaren barruan ez duela inolako presentziarik, hau da, kasu honetan, errumaniera gela barruan ordezkari gehien duen atzerriko ama hizkuntza izanik, ez da kontuan hartzen. Are gehiago, irakasleak ez du hizkuntza hau barneratua eta ez du batere ezagutzen.

Bigarrenik, ikasgelan kanpotar jatorrizko familietakoak diren ikasleek, kasu honetan errumaniar jatorrikoak, jarduera ez gidatuetan beraien artean errumanieraz hitz egiteko

askatasuna dute. Aldiz, jarduera gidatuetan errumaniera ez da kontuan hartzen eta ikasgelako hizkuntzan, euskaraz, eramaten dira aurrera.

Hirugarrenik, egunerokotasunean erabiltzen diren espazioetan, hau da, komun, ikasgela edota pasiloan ez dira agertzen ama hizkuntza ezberdinak. Are gehiago, erabiltzen diren material ezberdinak (liburuak, hormetako kartelak, fitxak, arauak...) gehienak euskaraz eta baten bat gazteleraz bakarrik agertzen dira.

Azkenik, egonaldian zehar hainbat gauza behatzeko aukera paregabea izan da. Ama hizkuntza errumaniarra duten ikasleak haien artean elkartzen dira errumanieraz hitz egin ahal izateko, hau da, testuinguru horretan ikasle hauek erosoago sentitzen dira haien ama hizkuntza askatasun handiz erabiltzeko aukera izanik. Bestalde, gainontzeko haurrei erreparatuz, euskaraz egiteko ohitura dutenen artean naturaltasun handiz euskaraz aritzen dira. Aldiz, etxetik erdaldunak direnen kasuan, euskarazko testuinguru horretan murgiltzea zailtasunak topatzen dituzte, haien artean erderaz aritzen direlarik.

6.2. Froga diagnostikoa

Jarraitzeko, froga diagnostikoaren bitartez aztertu eta behatu ahal izan dut, Covid-19 egoerak zein puntutaraino izan duen eragina kanpotar jatorrizko familietako hurrengan. Kasu honetan, eragina ez da oso handia izan, izan ere, haur hauek euskarazko testuinguru (herria) batean bizi dira eta beste modu batera, baina euskara landu eta barneratu ahal izateko aukerak ere izan dituzte. Hau da, ohikoa den bezala eragina nabaria izan da baina, euskara asko erabiltzen den herri batean gaudenez, era batera edo bestera honekin kontaktuan mantendu dira.

Froga diagnostikoaren bitartez baita ere, ikusteko aukera izan dut errumaniar jatorriko ikasle hauek oraindik zertxobait urruti daudela lexiko goiztiarraren barnerakuntzan. Hau da, gelako %64ak, ama hizkuntza euskara izanda, beste maila batean aurkitzen da besteekin alderatuz. Horrez gain, ama hizkuntza gaztelera duten ikasleen lexiko goiztiarraren maila zertxobait baxuagoa da lehen taldearekin alderatuz, aldiz, gazteleraz izugarrizko maila erakusten zuten helduen zenbait hitz erabiliz. Bestalde, errumaniar jatorrizko ikasle hauek gelaren %27a izanda, oso urrun daude oraindik eta hitz ezberdinak ezberdinu ahal izateko oraindik zailtasunak dituzte. Eraitza hauei esker frogatu dezakegu, Haur Hezkuntzako adinean geroz eta islada handiagoa duela haien egunerokotasunean entzuten duten euskara-kantitateak, hau da, *input*-ak: geroz eta euskara gehiago entzun haurren euskarazko hiztegia geroz eta zabalagoa izango da.

Jarraitzeko, lortutako emaitzek isladatzen duten errealitatea dela eta, esku-hartzeko bi jarduera ezberdin prestatu eta proposatzen dira. Bi esku-hartze hauen xede edota helburua, familia etorkinetako ikasleengan behatu ahal izan den hizkuntza-garapen maila areagotzea eta zabaltzea izango da, hizkuntzari dagokionez haur etorkinen eta bertakoen arteko ezberdintasunak murriztuz. Aipatu bezala, lehenik eta behin, ikasgela mailan eramango litzateke aurrera eta ondoren, herri mailan burutuko litzateke.

6.3. Esku-hartze proposamena

Lexiko goiztiarraren barnean, hizkuntza eta kultura era egokian menperatzen ez duten ikasleen murgiltze prozesua erraztu ahal izateko hurrengo esku-hartze hau proposatzen da. Lehenik eta behin, txartel moduko batzuk prestatuko dira non, ekintza ezberdinak burutzen dauden pertsonak azalduko dira. Horren ondoren, errumaniar hizkuntzan zein modutan esaten diren ekintza hauek ikasiko da. Txartel ezberdin hauen bitartez, hurrek asmatu beharko dute zein den burutzen ari den ekintza eta era berean, errumaniar hizkuntzan eta euskaraz zein modutan esaten den aipatuko zaie hurrek beraien kabuz erlazio zuzen hori egin dezaten errazago barneratzeko intzetioarekin. Horrez gain, ekintza zein den asmatu ondoren, antzerki moduan ekintza hori gainontzeko hurrei antzeztuko diete. Are gehiago, modu honetan haur hauen ama hizkuntza kontuan hartuko da eta ikasgelan presente izateko aukera izango da. Hori dela eta, hurrek errumaniar hitzarekin erlazio zuzen bat egiteko aukera izango dute eta lexiko goiztiarra lantzen joango da pixkanaka.

Bestalde, herri bezala eta gure baloreak transmititzeko nahiarekin, udaletxearekin batera hurrengo esku-hartze hau eramango da aurrera. Horretarako, kartel bat prestatuko da bertan, helburu ezberdinak finkatu ahal izateko (3.eranskina). Honen bitartez, kulturartekotasuna kontuan hartuko da, eta gure kulturako zenbait xehetasun ezberdin ezagutzen joateko aukera paregabea izan da, horien artean, hizkuntza, baloreak, ohiturak... Horretarako, familien laguntzarekin batera haur eta guraso hauek gure kulturako egunerokotasuna ezagutzen eta barneratzen joan daitezten hurrengo esku-hartze hau burutuko da. Lehenik eta behin, udaletxearen eskutik, kirolerako 2 talde ezberdin sortuko dira. Bertan, talde batek astean zeharreko kirol ekintzak egingo ditu eta beste taldeak aldiz, asteburuetan. Bertan, urtean zehar kirol ezberdinak egiteko aukera izango dute eta euskal kulturako hurrekin harremanak eta bestelakoak elkartrukatzeko aukera ere. Are gehiago, kirolaren bitartez gure hizkuntza geroz eta gehiago ezagutzeko aukera paregabea izango dute. Horrez gain, gure kulturak kirolari dagokionez, transmititzen dituen baloreak barneratzeko gai ere izan dira. Beraz, honen bitartez astero kirol ezberdinak aurrera

eramango dira eta astean behin talde bakoitzak saio bat izango du. Aste bakoitzean interesa duenak etortzeko aukera izango du, modu honetan, talde eta harreman berriak eraikitzeko aukera izango dute astero talde berriak egingo baitira. Talde finakoak sahiesteko helburu hau lortu nahi da pertsona ezberdinak eta harreman ezberdinak eraikitzeko nahiarekin.

	SAIOAK	IRAUPENA	MATERIALA	TALDEKATZEA/ ELKARREKINTZA
ESKOLA MAILAKO ESKU-HARTZEA	7	30 minutu	-Ekintzen txartelak	Talde handian
HERRI MAILAKO ESKU-HARTZEA	Astero saio bat ikasturte osoan zehar	60 minutu	-Udaletxeak ekintzetarako	30 pertsonako bi talde ezberdin

Ondoren, esku-hartzearen emaitzei dagokienez, behatu ahal izango da lexiko goiztiarra lantzerako orduan ama hizkuntza kontuan hartuz gero hauen hizkuntza maila zabalagoa dela. Hau da, errumaniar jatorrizkoen kasuan haien hizkuntza eta euskara tartekatzean, hauen hiztegia askoz zabalagoa izango da eta haien garapena erritmo azkarrago batean emateko aukera egongo da.

7. Ondorioak

Lehenik eta behin, maila teorikoan ikerketa honetan zehar hainbatetan aipatu diren kontzeptu eta ezagutza teorikoak praktikara ekarri eta lantzeko aukera izan dut. Horien artean, ikusteko aukera izan dut hizkuntza jabekuntza goiztiarra testuinguru eleanitzetan nola gertatzen den. Kasu zehatzak kontuan edukiz, EAEko testuingurua adibidetzat hartuta, elebitasunarekin eta profil ezberdinetako ikasleekin lotutako hizkuntza jabekuntza, zehatzagoak izateko.

Aipatzekoa da lan honetan Haur Hezkuntzako gela bakar bat ikertu dela, hau da, ikerketa ikasgela horretara bakarrik mugatu da eta, beraz, ezin da behatutakoa beste ikastetxe batzuetara orokortu. Aldiz, ikerlan hau, ikastetxearen eta ikasgelaren errealitatea bere osotasunean ezagutzeko baliogarria izan daitekeela uste da; alde batetik, orokorrean eskolak hizkuntza aniztasuna zein modutan duen presente jakin ahal izateko, eta bestetik, familia etorkineko ikasleen lexiko goiztiarra zein etapan aurkitzen den behatu ahal izateko.

Jakin badakigu gure gizartean geroz eta familia etorkina duten ikasle gehiago edukiko ditugula, beraz, egoera horren aurrean lan egin behar da eta egoera hori era egokian kudeatu. Horretarako ezinbestekoa da, gure ikastetxeak era inklusibo batean prestatzea ikasle guztien beharrak asetu ahal izateko.

Ikertutako ikastetxeari dagokionez, jasotako datu eta ebidentzia ezberdinak direla eta, esan daiteke ikastetxea ez dela ari beharrezkoak diren pauso guzti horiek ematen dauden beharrei era egokienean erantzun ahal izateko. Are gehiago, ikusi den moduan, ikastetxearen egunerokotasunean (horma, pasillo, komunak) familia etorkineko ikasleen jatorrizko hizkuntzei erreferentzia edota aipamen gutxi egiten zaie. Hau da, hizkuntza paisaian euskara edo gaztelania ez den beste hizkuntzarik ez da agertzen. Horren ondorioz, familia etorkineko ikasleen jatorrizko hizkuntza horiek ikusezin bihurtzen dira. Familia etorkineko haurren presentzia ikastetxe honetan oso altua ez den arren, ikasleen ama hizkuntzek presentzia handiagoa izango zutela uste zen hasiera batean.

Jarraitzeko, marko teorikoan aipatu da ama hizkuntza aniztasuna zaintzeak duen garrantzia eta horretarako, ikastetxeak burutu ditzakeen hainbat estrategia eta ekintza ezberdin. Kasu honetan, ez da kontuan hartzen autoreek ikasleen etxeko hizkuntzaren garrantziaz ematen dituzten azalpen ezberdinak. Irakaslearekin izandako elkarrizketari esker, ikastetxe honetako irakasleek ez dutela presente familia etorkinetako haurren ama hizkuntza eta are gehiago, hizkuntza hau ez dutela ezagutzen jakin ahal izan da. Horren ondorioz, gaur egun egoera honetan, behar ezberdinen aurrean ezin zaie era berean erantzun ikasleei. Hau guztia kontuan hartuz, gizartean dugun gaur egungo egoerari era egokian erantzun ahal izateko ezinbestekoa dirudi irakasleei formakuntza egoki bat ematea eta, honen bitartez, lehen pausoak ematea egoera hobetu ahal izateko. Are gehiago, formakuntza egoki horren bitartez, momentu bakoitzean nola jokatu jakitea eta familia etorkineko ikasle guztien ama hizkuntzak errespetatzea ezinbestekoa suertatzen da. Barquinek (2006) aipatzen duen bezala, irakasleontzat berriak izan ahal diren egoera ezberdinen aurrean egon gaitetzke. Hori dela eta, ezinbestekoa da jakitea une eta egoera bakoitzean nola jokatu behar dugun gu garelako ikasle horiei baliabide ezberdinak eskaini behar dizkiegunak.

Ikastetxe mailan, gai honen inguruan zerbait adostea eta erabakitzea erantzun ona izan liteke. Hau da, horrek lagunduko luke ama hizkuntza hauek normalizatzen eta ikasgela barruan presente edukitzen. Horretarako, ikastetxe honetan oso baliabide egokia izango litzateke familien presentzia erabiltzea. Hau da, irakasleak famili etorkinen presentzia erabiltzea ikasgela barruan proiektu edota jarduera ezberdinak aurrera eramanez ahal izateko.

Familiak ikasgela barruan haien herrialdeko kultura eta hizkuntzaren inguruan hitz egitea ikasleen jatorrizko hizkuntza barneratzen joan ahal izateko. Hau da, ikasgelan jarduera ugari egiteko bideak daude ikasleen ama hizkuntzak indartzeko, irakasleek hizkuntza horiek ez ezagutu arren, adibidez: agurrak haien hizkuntzan ezagutu, haien herrialdeko kanta ezberdinak ezagutzen...

Jarraitzeko, behatu ahal izan den moduan, lexiko goiztiarra barneratzerako orduan, ezberdintasuna oso handia dago euskara etxeko hizkuntza duten (H1) eta ez duten (H2 goiztiarra) haurren artean, azken talde honetan bi azpitalde nabarmenduz: familia etorkinen seme-alabak eta bertako euskaldunen seme-alabak. Badago baita ere aipatzekoa den tarteko kasu bat euskara H2 goiztiarra dutenen baitan: euskal herritarra izanda etxetik gaztelania ekartzen duen ikaslearena, jabeakuntza goiztiarraren prozesuan familia etorkinen haurren antzerako patroia erakusten duena. Beraz, ikusi da etxeko hizkuntzak izugarritzko eragina izan dezakeela, hau da, haur batek bere egunerokotasunean geroz eta euskara kantitate gehiago entzun euskal gramatikaren garapenean erraztasun handiagoak izango ditu (Barreña eta beste, 2008). Beraz, hau kontuan hartuta, herri mailan ezinbestekoa da erantzun egokiak eman ahal izatea eta familia etorkineko ikasleen murgiltze prozesuaren etapa eta erritmo ezberdinak momentu oro errespetatzea.

Bestalde, euskara ez den beste hizkuntza bat egunerokotasunean erabiltzen duten haurren kasuan, haien jatorrizko hizkuntza hori ikasgelan presente edukitzeak, haien integrazio eta garapenean oso lagungarria izan daitekeela ikusi ahal izan da froga diagnostikoaren bitartez. Hau da, ikasgelaren parte sentiarazi behar zaie eta beraien ama hizkuntza gelara ekartzea baliabide oso egoki bat izan daitekeela uste da.

Aipatutakoarekin batera, familien laguntza eta elkarlana ezinbestekoa da haurrek kulturartekotasuna landu ahal izateko eta gure hizkuntza ahalik eta egokien ikas dezaten. Are gehiago, eskolaz kanpoko orduak baita ere izugarritzko garrantzia dute eta ez da nahikoa eskolan iharduten duten orduekin. Eskolaz kanpoko ordu eta ekintza hauen bitartez, murgiltze prozesu hau askoz eramangarriagoa eta eraginkorragoa bihurtzen da. Beraz, ezinbestekoa izan daiteke familiak, eskolak eta herriak era koordinatu batean eta guztiak batera lan egitea ikasle eta haur etorkinak gure kulturaren barneratu ahal izateko.

Orain arte aipatutako guztia kontuan hartuz, esan daiteke ez gaudela guztiz prest gaur egungo gizartean suertatu den egoera honi aurre egiteko. Hau da, erronka honen aurrean ikastetxe mailan hainbat aldaketa ezberdin eskatzen dira, antolakuntzan, metodologian eta baliabide ezberdinetan besteak beste. Beraz, aldaketa hauek era egokian

burutzeak, familia etorkinen ikasleentzako izugarritzko onura suposatuko luke haien garapen eta murgiltze prozesuan. Are gehiago, familia etorkineko ikasleen jatorritzko hizkuntza gelan txertatzeko baliabide ezberdinak izanez gero, gainontzeko ikasgelako familia etorkineko ikasleek dakartzaten kultur eta hizkuntza aniztasunaz aberastuko dira eta hainbat balore ezberdinen ikaskuntzan oso baliagarria izan daiteke. Norabide honetan jardute aldera luzatu da, hain zuzen ere, lan honen zati den proposamen didaktikoa

8. Mugak eta hobekuntza proposamenak

Ikerlan honen azken emaitza ikusita, hainbat muga eta hobekuntza proposamen aurkitu ditut eta hurrengo lerroetan azaltzen saiatuko naiz.

Lehenik eta behin, burututako azterlana ikastetxe bakar batean eraman da aurrera eta nire ikuspuntutik beste hainbat ikastetxerekin alderatzea interesgarria izan zitekeen. Aldiz, oinarri moduan etorkizun baterako baliagarria izan daitekeen zerbait dela esango nuke. Beraz, hurrengo baterako ikastetxe ezberdinak ikerlanaren barruan sartzeak, honi aberastasuna emango lioke eta emaitza fidagarri eta zabalagoak lortzeko aukera paregabea izango litzateke.

Jarraitzeko, interesgarria izango litzateke datuak eta ebidentziak jasotzeko erabili diren tresnak eta metodoak hobetu ahal izatea. Hau da, elkarrizketa egiterako orduan, uste dut baliagarria eta interesgarria izan dela ikasgelako tutoreari egitea, aldiz, esango nuke ikastetxea osatzen duten beste hainbat zati garrantzitsuei (zuzendaritza) beste elkarrizketa bat egitea interesgarria izango litzatekeela, auzi honen inguruko beste ikuspuntu bat lortu eta behatu ahal izateko.

Horrez gain, aurrera eraman den ikerketa hau testuinguru eta herri euskaldun batean egin da. Hau da, etorkin kopurua ikastetxe honetan ez da oso altua, beraz, interesgarria izango litzateke etorkin kopuru oso altua dagoen ikastetxe eta herri batean froga hauek egitea, emaitzetan ezberdintasunak eta aldeak era argiago batean ikusi ahal izateko. Hau da, bi ikastetxe ezberdinen arteko konparaketa horrek aberastasuna emango lioke ikerketari inongo zalantzarik gabe.

Azkenik, kasu honetan familia etorkineko ikasleen lexiko goiztiarraren inguruan ikertzen saiatu naiz. Aldiz, familia etorkineko ikasleen jatorritzko hizkuntzen trataeran askoz gehiago sakon daiteke eta beste hainbat auzi ezberdin landu ahal dira honen inguruan. Hau da, lan honek ukitzen ez dituen beste hainbat alderdi landu ahal dira.

9. Erreferentziak

- Barquín, A. (2009): "De donde son los hijos de los inmigrantes: La construcción de la identidad y la escuela." *Revista Educar*, 44, 81-96.
- Bilbao, X. (1998): "Hezkuntza elebidunaren onurak eta arriskuak" in *Hezkuntza Elebiduna. Zenbait oinarri*. Gasteiz: UPV-EHU eta Arabako Foru Aldundia, 49-66.
- Bilbao, X. (1998). *Hezkuntza elebiduna. Zenbait oinarri*. Vitoria-Gasteiz: Arabako Foru Aldundia eta UPV / EHU.
- Educación y bilingüismo en el estado español. (1998). *Textos 18*. Published. <https://dugi-doc.udg.edu/bitstream/handle/10256/10626/-educacion-y-bilinguismo.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Elebitasuna eta hezkuntza euskararen herrian. (1999, 1 diciembre). *Hik hasi*. <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/19991201/elebitasuna-eta-hezkuntza-euskararen-herrian>
- Etorkinen seme-alaben jatorrizko hizkuntzen trataera eskolan. (2013–2014). *Addi*. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/14030/TFG_Falagan_Landa.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Etxeberria, F. (2006): "Hizkuntza irakaskuntza ikasle etorkinekin" in *Jakin aldizkaria* 154. alea. 2014-05-15-an hartua, webgune honetatik berreskuratua: <http://www.jakingunea.com/aldizkaria/artikuluak/hizkuntza-irakaskuntza-ikasle-etorkinekin/21>
- Hezkuntza aniztasuna Europar Batasunean. (2006). *Euskaltzaindia*. <http://www.euskaltzaindia.com/dok/euskera/67608.pdf>
- Euskara eta etorkinak. (2004). *Bat soziolinguistika*. Published. <https://bat.soziolinguistika.eus/eu/produktua/52-2004ko-iraila-euskara-eta-etorkinak/>
- Euskara Institutua, EHU, "Hizkuntzaren jabetasuna", *Sareko Euskal Gramatika (SEG)*, www.ehu.eus/seg ISBN: 978-84-693-9891-3.
- Manterola, I. eta Berasategi, N. (2011). *Hizkuntza gutxituen erronkak*. Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.
- Manterola, I. eta Lardizabal, E. (2010). *Haur etorkinen euskara: eskolaren eta inguru euskaldunaren eragina*. Bilbo: Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Vila, I., Siguan, M. (1998): *Bilingüisme i educació*. Bartzelona: Proa.

10. Eranskinak

1. eranskina: ELKARRIZKETA

Elkarrizketa honetan, Haur Hezkuntzako 4 urteko gelako tutoreari egin zaio. Bertan, ikasgelaren eta bertako haurren inguruko xehetasunak eta nondik norakoak azalduko dira.

Elkarrizketak 4 zati ezberdin izango ditu. Lehenik eta behin, ikasgelaren datu orokorren inguruan. Bigarrenik, ikasleen ama hizkuntzek gelan duten presentziaren inguruan. Hirugarrenik, irakasleak familia etorkinekiko duen harremana. Azkenik, kulturartekotasuna eta lexiko goiztiarraren inguruan galdetuko zaio. Beraz, hauek dira irakasleari egindako galderak.

ELKARRIZKETA

DATU OROKORRAK

- 1. Zenbat ume daude gelan?**
- 2. Zenbat urte daramatzazu ikasle talde berdinarekin?**
- 3. Horietatik, zenbat dira familia etorkinetakoak?**
- 4. Zenbat denbora daramatzate eskolan?**
- 5. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?**

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN TRATAERA GELAN

- 6. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?**
- 7. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki beharko lukete ikasgelan? Zein da kasu honetan ematen zaion trataera?**
- 8. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?**

FAMILIA ETORKINEKIKO HARREMANA

- 9. Ba al daude familiak gaztelaniaz ondo moldatzen ez direnak?**
- 10. Nola bideratzen duzue bilerako komunikazioa?**
- 11. Zein da familiek duten papera eskolako eta gelako proiektuetan?**
- 12. Nabaritzen al da Covid egoerak haurren eta familiengan izan duen eragina? Zein aspektu edo egoeretan?**

LEXIKO GOIZTIARRA/KULTURARTEKOTASUNA

- 13. Ezberdintasun handia dago euskaldunen eta bestelakoen artean hiztegiari dagokionez?**

14. Esango zenuke aniztasun kulturala kontuan hartzen dela ikasgelaren barruan?

Hurrengo lerroetan galdera hauen erantzunak aurkitu ditzazkezue.

ELKARRIZKETA

DATU OROKORRAK

1. Zenbat ume daude gelan?

-Ikasgelan 22 ume daude.

2. Zenbat urte daramatzazu ikasle talde berdinarekin?

-Aurtengo ikasturtea bigarrena izango da haur talde berdinarekin eta hori asko eskertzen dut haurrak bere osotasunean ezagutzen ditudalako eta lan egitea errazagoa egiten zaidalako.

3. Horietatik, zenbat dira familia etorkinetakoak?

-Ikasgelan ditugun 22 haurretatik, 5 dira familia etorkinetakoak. Hau da, jatorri errumaniarrekoak dira 5 familia hauek.

4. Zenbat denbora daramatzate eskolan?

-Errumaniar jatorriko ikasle hauen kasuan, bigarren urtea dute ikastetxe honetan, hau da, 3 urteko gelan sartu ziren.

5. Zenbat ama hizkuntza daude gelan? Zeintzuk?

-Ikasgela honen kasuan, 3 ama hizkuntza ezberdin bereizten dira: Gaztelania, euskara eta errumaniera.

IKASLEEN AMA HIZKUNTZEN TRATAERA GELAN

6. Zelako garrantzia ematen diozu ikasleen jatorrizko hizkuntzei?

-Orokorrean esango nuke ikasle bakoitzaren ama hizkuntza bere garrantzia duela. Aldiz, nire kasuan garrantzi handiagoa ematen diot ikastetxeko hizkuntzari, kasu honetan euskara, eta horrekin lantzen ditugu aspektu ezberdinak. Egia da, oso gutxitan eta kasu zehatzetan ama hizkuntzak lantzeko jarduerak egiten ditugula baina ez da egunerokotasunean lantzen den zerbait.

7. Zure ustez, ikasleen ama hizkuntzek presentzia eduki beharko lukete ikasgelan? Zein da kasu honetan ematen zaion trataera?

-Egia da presentzia minimo bat edukitzea ikasgelan egokia izango litzatekeela. Aldiz, gure ikastetxeko hizkuntza gehienbat erabiltzera ere bultzatu behar ditugu haurrak eta horregatik saiatzen naiz hori haurrek ikustea eta hizkuntza hori erabiltzea ahalik eta gehien.

8. Ama hizkuntza bera duten ikasleek, oro har, haien artean ama hizkuntzan komunikatzen dira?

-Ikasgela honetan ematen den kasu bat da hau. Hau da, errumaniar ama hizkuntza duten ikasleek jolas ez-gidatuetan haien artean erruamanieraz egiten dute. Are gehiago, eskolatik kanpo haur hauek harremana mantentzen dute eta bertan baita ere erruamanieraz egiten dute. Beraz, naturaltasunez ateratzen zaien zerbait dela uste dut eta egoera hauetan hizkuntza hori erabiltzea uzten diet. Aldiz, talde handian lan egiten dugunean, haurrek badakite ikasgelako hizkuntza ahal duten moduan erabili behar dutela eta hori oso barneratuta dute.

FAMILIEKIKO HARREMANA

9. Ba al daude familiak gaztelaniaz ondo moldatzen ez direnak?

-Errumaniar jatorriko familien artean gehienak gaztelaniaz ondo moldatzen dira. Aldiz, familia baten kasuan gaztelania oraindik ez dute oso ondo menperatzen. Gainontzeko familiak euskaraz oso ondo moldatzen dira.

10. Nola bideratzen duzue bilerako komunikazioa?

-Bileretan bi gurasoak presente egotea saiatzen gara. Hau da, familia hauen kasuan bataki ez badaki gaztelaniaz besteak bai. Aldiz, aipatu dudan familia horren kasuan, normalean familiarteko bat etortzen da bileretara eta horren bitartez, saiatzen gara informazioa transmititzen.

11. Zein da familiek duten papera eskolako eta gelako proiektuetan?

-Familiek jokatzen duten papera ikasgelako proiektuetan oso handia da. Hainbat kasutan familien pertsona erabiltzen dugu haurrek ezaguna duten norbait ikusi ahal izateko. Adibidez, edozein proiektutan bideo baten bitartez gurasoak presente eduki ditugu ikasgelan eta hori beti ere eskertzekoa da. Beraz, orokorrean ikasgelan honetan familiek duten papera oso handia eta protagonista izaten da normalean.

12. Nabaritzen al da Covid egoerak haurrengan eta familiengan izan duen eragina? Zein aspektu edo egoeretan?

-Bai, noski. Gure gizartean bezala, ikasgela honetan bai familietan eta bai haurretan eragina izan du. Are gehiago, esango nuke eragin handiagoa izan duela errumaniar jatorriko familia

eta haurrengan, hau da, hizkuntzari dagokionez ez dute testuinguru euskaldun hori izan eta euskara ikaste prozesu horretan atzera pauso nabari izan dela esango nuke.

LEXIKO GOIZTIARRA/KULTURARTEKOTASUNA

13. Ezberdintasun handia dago euskaldunen eta bestelakoen artean hiztegiari dagokionez?


-Ezberdintasunak ageri dira ohikoa den bezala. Testuinguru euskaldun batean egoteak eta euskara kantitate handia entzuteak izugarri laguntzen du hiztegi hori areagotzen. Beraz, kasu horietan bai ikusten dira ezberdintasun horiek. Aldiz, adibidez, familia erdalduneko kasu bat daukagu ikasgelan, eta haur honen kasuan euskarazko hiztegia oso txikia da aldiz, gaztelaniako hiztegia oso zabala da eta heldu baten antzerako hitzak aipatzen ditu.

14. Esango zenuke aniztasun kulturala kontuan hartzen dela ikasgelaren barruan?

-Ikasgela honen kasuan aniztasun kulturala oso handia ez den arren, hau kontuan hartzen dugula eta errespetatzen dugula esango nuke. Hau da, hainbatetan eramaten ditugu aurrera proiektuak non beste herrialdeetako kultura eta ohiturak barneratzen ditugun. Beraz, ama hizkuntzak ikasgelan oso presente ez ditugun arren saiatzeko gara aniztasun kultural hori ahal den moduan presente edukitzen gure ikasgelaren barruan.

2. Eranskina: “H” LETRAREN EZAGUTZA

Neurketa honetan, euskararen inguruko hiztegi goiztiarra neurtzea izango dugu helburu bezala. Horretarako, “H” letra duten zenbait hitz ezberdin landuko dira ondoren, hitz konplexuago batzuk ezagutu ahal izateko. Azkenik, argazki bakoitza dagokion hitzarekin lotu beharko dute “H” letra kolore horiz nabarmenduz.




3. Eranskina: HERRI MAILAKO ESKU-HARTZEA


Herri mailako esku-hartze honen kasuan, familia etorkinak gure kulturaren eta gure gizartean integratzeko eta barneratzeko ahalegin horretan murgildurik hurrengo kartel hau prestatu da jendea animatu ahal izateko.

**EUSKAL KULTURA
ETA HIZKUNTZA
EZAGUTZEN**
Familia etorkinak integratzeko Nahia!


**FAMILIEN ARTEKO
KULTURA TRUKAKETA**
Beste jatorri bateko familiak gure kulturako xehetasunak barneratzeko aukera izatea, horien artean, gure hizkuntza bere osotasunean ezagutzeko aukera.



**KIROLAREN BITARTEZ
IDEIAK PARTEKATU**
Familia ezberdinen arteko elkarbizitza kirolaren laguntzaz



**PERTSONA
EZBERDINEN
EZAGUTZA**
Honen bitartez, harreman berriak eraikitzea haur eta familia guztien artean etorkinen integrazioa erraztu ahal izateko.



**EUSKARA ALTXORRA
HELARAZI**
Euskararekin dugun altxorra familia etorkinei helarazi eta hauen murgiltze prozesuan lagundu.

1.TALDEA-->> 17.00
ASTEZKENA UDALETXEAN

2.TALDEA-->>10.00
LARUNBATA
UDALETXEAN